



GARRAITZ KIROL TALDEA



lekeitioko  
udala

# LEKEITIOKO XXVII. IGERIKETA ZEHARKALDIA

2026/06/27 – 16:00 / Distantzia: 1900 m

Izen-ematea: [www.sailkapenak.com](http://www.sailkapenak.com)

26 €



**ISVNTZA**  
ARRAUN ELKARTEA



Lekeitioko piragua taldea



Informazioa: [garraitz@garraitz.com](mailto:garraitz@garraitz.com)

Izen-emate epeak: 2026/03/27– 2026/06/23

Kupoa: 500 pertsona

Dutxak eta arropazaindegi zerbitzua izango dira partehartzaileentzat

EL CORREO



Bizkaiko Foru  
Aldundia  
Diputación  
Foral de Bizkaia



DANOBAT



## ARAUDIA/INFORMAZIOA

Hurrengo azaltzen diren arau guztiak bete beharko dira Lekeitioko XXVII. Kilin Kala Zeharkaldian. Zalantzarik izanez gero antolatzaileen iritzia eta erabakia onartuko da. Partaideek arau guztiak ontzat ematen dituzte izen-ematea egitean.

### TXANO, TXIP ETA KAMISETA BILKETA

Txano, txip eta kamisetak proba egunean jaso ahal izango dira 14:30etatik aurrera. Isuntza hondartzako sarreran edo enparantzako kioskoan. Horretarako NANA aurkeztu beharko du.

### INSKRIPZIOAK ([www.sailkapenak.com](http://www.sailkapenak.com))

Inskripzioak pertsonalak eta transferiezinak dira, hortaz ezingo da beste partaide bat etorri proban parte-hartzera inskripzioa egin duenaren orde.

### NEOPRENOA

Berez proba neopreno barik egin beharko zen, baina neoprenoa onartua dago, betiere sarietara aukerarik izan gabe. **Sailkapenean ere ez dira agertuko** (txipik gabe bete beharko dute proba).

### ADINGABEKOAK

Partaidetza pertsona guztiei irekita dago, betiere proba datan (urtean) 15urte betetzen badute. 15 eta 18 urte bitartekoek guraso edo tutoren baimena aurkeztu beharko dute txipa hartzeko unean edo korreoz [garraitz@garraitz.com](mailto:garraitz@garraitz.com) helbidera bidaliz.

### GAITASUN FISIKO MUGATUAK

Gaitasun fisiko mugatua eta igerialdian parte hartuko dutenek Garraitz Kirol Taldekoekin harremanetan jartzea eskatzen dizuegu ([garraitz@garraitz.com](mailto:garraitz@garraitz.com)) horrela antolakuntzak kontuan hartuko eta laguntza eskeiniko lioke.

### GAINDITU BEHARREKO DENBORAK

Antolatzaileek araudian jarritako denbora-muga ez dutenek gainditzen proba utzi beharko dute. Hirugarren buian izango da (proba erdian gutxi gorabehera). **Denbora-muga 35 minutukoa izango da.**

### SAILKAPENAK ETA GARAİKURREN BANAKETA

Proba amaitzean, 13:00 aldera banatuko dira, herriko enparantzaren. Sailkapen orokor bat eta kategoria eta sexuaren araberako sailkapenak egingo dira. Saria probaren irabazleari, gizon eta emakumezko kategorian. Kategoria eta sexuaren araberako sailkatutako lehenak garaikurrak izango dute.

### ARGITARATZEA

Probako argazkiak ondorengo webgunean argitaratuko dira: [www.sailkapenak.com](http://www.sailkapenak.com) eta [www.festak.com](http://www.festak.com)

ARROPA GORDETZEA: 15:00 – 17:30



GARRAITZ KIROL TALDEA



lekeitioko  
udala

### **LESIO EDO EZINTASUNA**

*Lesiogatik edo beste pisuko arrazoiren bategatik ezin baduzu parte-hartu eta izen-ematea ezeztatu nahi bada 5 €-ko erretentzioa izango du prezioaren gainean. Ezeztapena egiteko epe muga ekainak 10a da, eta prozesu hautetarako antolakuntzarekin harremanetan jarri beharko da. Azken orduko lesioa bada ekainak 15aren ondoren, itzulpena onartuko da medikuaren ziurtagiria aurkeztuz. Tramite hauetarako antolakuntzarekin jarri beharko zara harremanetan. [garraitz@garraitz.com](mailto:garraitz@garraitz.com)*

### **PROBA BERTAN BEHERA GERATZEA**

*Antolatzailak ibilbidea aldatzeko, irteera ordua aldatzeko edo proba beste egun batean egiteko eskubidea izango du. Proba bertan behera geratzen bada, izenemateagatik ordaindutakoa ez da itzuliko.*

### **ZIGORRAK**

*Antolakuntzak edozein zigor jarri ahal izango du, arlo guztietan.*

### **PARTAIDEEN DATUEN ERABILPENA**

*Proba honetan izena ematean, partaideak baimena ematen dio antolakuntzari bere izena eta argazkiak antolakuntzarekin zerikusia duten komunikabideetan erabiltzeko denbora muga gabe.*

*Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa, Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzkoaren arabera, partaideak probaren antolakuntza, kudeaketa eta garapenerako beharrezkoak diren datu pertsonalak erabiltzea baimentzen du proba honetan izen ematearekin batera.*

### **AZKEN AIPAMENA**

*Antolakuntzak ohartarazten du proba honek itsas zeharkaldiek dauzkaten arrisku guztiak dituela, hori dela eta, prestakuntza egokia izatea eskatzen da eta baita osasun egoera zuzena. Beraz, duintasunez bukatzeko gai ez direnek izena ez emateko aholkatzen da. Antolakuntza libre geratzen da zeharkaldiak partehartzaileei eragin diezaiokeen kalte eta erantzunkizunetatik, beraiek izanik izena ematearekoan bere buruaren arduradun.*

EL CORREO



Bizkaiko Foru  
Aldundia  
Diputación  
Foral de Bizkaia






GARRAITZ KIROL TALDEA



lekeitioko udala

## Ibilbidea:



EL CORREO



Bizkaiko Foru  
Aldundia  
Diputación  
Foral de Bizkaia



DANOBAT

